

01/17 AKTA

**TOKIKO GOBERNU
BATZARRAK 2017KO
URTARRILAREN 31N EGINDAKO
OHIKO BILKURA.**

ETORRITAKO JAUN-ANDEREA

ALKATEA

María Isabel LANDA GAUBEKA and.

ZINEGOTZIAK

Miren Izaskun ZUBIAUR ZARRAGA
and.

Aitor MIÑAMBRES AMEZAGA jn.
Nerea JIMENEZ FERNANDEZ and.

IDAZKARIA

Juan Pablo ARNEDO ACEBO jn.,
ekitaldiaren fedea eman duena.

Berangoko Udaletxean, Tokiko Gobernu Batzarraren bilkuretarako lokalean, bi mila eta hamazazpiko urtarrilaren hogeita hamaikan, lehenengo deialdian, goian adierazitako zinegotziak batzartu dira, denak ere Tokiko Gobernu Batzarreko kideak, eta alkate anderea den María Isabel Landa Gaubeka and. izan da batzarburua

Arratsaldeko 20:30ak direla, alkate-udalburu andreak bilera hasi dela adierazi du, behin bilera egiteko behar besteko quoruma dagoela egiaztatu ondoren, AJAren 113.1.c) artikuluan xedatutakoaren arabera. Jarraian, ebatzi beharreko gaiak aztertu eta eztabaidatzeari ekin diote eta ondoko erabakiak hartu dituzte

ACTA 01/17

**SESIÓN ORDINARIA
CELEBRADA POR LA JUNTA DE
GOBIERNO LOCAL EL 31 DE
ENERO DE 2017.**

ASISTENTES

ALCALDESA

D^a. María Isabel LANDA GAUBEKA

CONCEJALES

D^a. Miren Izaskun ZUBIAUR
ZARRAGA

D. Aitor MIÑAMBRES AMEZAGA
D^a. Nerea JIMENEZ FERNANDEZ

SECRETARIO

D. Juan Pablo ARNEDO ACEBO, que
da fé del acto.

En el local destinado al efecto en el edificio de la Casa Consistorial del Ayuntamiento de Berango, a treinta y uno de enero de dos mil diecisiete, se reunieron en primera convocatoria bajo la presidencia de la Sra. Alcaldesa, D^a. María Isabel Landa Gaubeka, los Srs. Concejales arriba indicados, miembros de esta Junta de Gobierno Local.

Siendo las 20,30 horas, la Sra. Alcaldesa declara abierto el acto una vez comprobada la existencia del quórum de asistencia preciso para que se pueda iniciar, de acuerdo con el artículo 113.1.c) del R.O.F., procediéndose a continuación al examen y deliberación de los asuntos a resolver, adoptándose los siguientes

ERABAKIAK

1.- AURREKO BILKURAREN AKTA ONARTZEA, BIDEZKOA BADA.

Alkate and.ak galde egin du ea Tokiko Gobernu Batzarreko kideren batek 2016ko abenduaren 13an egindako azken bilkuraren aktari oharrik egin behar dion.

Ez da oharrik egin eta batzordekideek aho batez onartu dute akta.

2.- OBRAK, ZERBITZUAK ETA HIRIGINTZA

2.1.- BERANGOKO ðHAPB-1 ETXEBARRIÖ URBANIZATZEKO JARDUKETA-PROGRAMAREN ALEGAZIOEI ERANTZUNA EMATEA ETA BEHIN BETIKO ONARTZEA.

Berangoko ðHAPB-1 Etxebarriö Urbanizatzeko Jarduketa-Programaren Testu Bategina behin betiko onartzeko proposamena, alegazioak eta alegazioei erantzuteko proposamena aztertu dira. Berangoko Etxebarriko hiri lurzorua hiri hiritza garapenerako batzorde kudeatzaileak idatzi du, Lurzorua Legean jasotako zehaztapenak ditu eta udal teknikariak bere aldeko txostena egin du.

Tokiko Gobernu Batzarrak, bere kideen adostasunez, honako hau ERABAKI DU

LEHENENGOA.- Hasierako onarpena jendaurrean azaltzeko tramitean interesdunek aurkeztutako alegazioak ebatzi dira, txostenetan

ACUERDOS

1.- APROBACIÓN, SI PROCEDE, DEL ACTA DE LA SESIÓN ANTERIOR.

La Sra. Alcaldesa pregunta si algún miembro de la Junta de Gobierno Local tiene que hacer alguna observación al acta de la última sesión, celebrada el día 13 de diciembre de 2016.

Al no formularse ninguna es aprobada por unanimidad de sus miembros.

2.- OBRAS, SERVICIOS Y URBANISMO

2.1.- CONTESTACIÓN A LAS ALEGACIONES Y APROBACIÓN DEFINITIVA DEL PROGRAMA DE ACTUACIÓN URBANIZADORA DEL PEOU-1 ETXEBARRI DE BERANGO.

Examinadas las alegaciones, la propuesta de contestación a las mismas y la propuesta de aprobación definitiva del Texto Refundido del Programa de Actuación Urbanizadora del PEOU-1 Etxebarri de Berango, redactado por la Comisión Gestora para el desarrollo urbanístico del suelo urbano de Etxebarri en Berango, el cual contiene las determinaciones contenidas en la Ley del Suelo y que ha sido informado por la técnico municipal.

La Junta de Gobierno Local, por unanimidad de sus miembros, ACUERDA

PRIMERA.- Resolver las alegaciones presentadas por los interesados en el trámite de exposición pública a la aprobación inicial, en los

adierazitako terminoetan. Ebazpen honen eranskinean sartu dira eta ebazpen hau arrazoitzeko balio dute.

BIGARRENA.- Alegazioren bat aurkeztu duen bakoitzari, dagokion txostenak bidaltzea, erantzuna emanaz.

HIRUGARRENA.- Berangoko òHAPB-1 Etxebarriò Urbanizatzeko Jarduketa-Programaren Testu Bategina behin betiko onartzea. Berangoko Etxebarriko hiri lurzoruaren hirigintza garapenerako batzorde kudeatzaileak idatzi du.

Honako hauek dira programaren funtsezko elementuak:

- Esparrua: Etxebarri Sektorea.
- Sustatzaileak: Etxebarri kudeaketa batzordea.
- Talde idazlea: Javier Gurrea Bilbao, arkitektoa.
- Mugatutako azalera osoa: 79.911,68 m².
- Jarduketa sistema: Hitzarmena.
- Urbanizazio kargen zenbatekoa: 1.730.798,00 euro.

LAUGARRENA.- Onarpen-erabakia hedapen arrunta duen egunkari batean eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

BOSGARRENA.- Erabaki hau jakinaraztea sustatzaileari eta jarduketak ukitutako ondasun eta eskubideen titularrei.

términos expuestos en los informes, que se incorporan a la presente resolución y les sirven de motivación.

SEGUNDA.- Trasladar a quienes afecte los informes emitidos en respuesta a su alegación.

TERCERA.- Aprobar definitivamente el Texto Refundido del Programa de Actuación Urbanizadora del PEOU-1 Etxebarri de Berango, redactado por la Comisión Gestora para el desarrollo urbanístico del suelo urbano de Etxebarri en Berango.

Los elementos esenciales del Programa son los siguientes:

- Ambito: Sector Etxebarri.
- Promotores: Comisión Gestora Etxebarri.
- Equipo Redactor: Javier Gurrea Bilbao, Arquitecto.
- Superficie total delimitada: 79.911,68 m².
- Sistema de Actuación: Concertación.
- Importe Cargas Urbanización: 1.730.798,00 euros.

CUARTA.- Publicar el acuerdo aprobatorio en un diario de difusión corriente y en el Boletín Oficial de Bizkaia.

QUINTA.- Notificar el presente acuerdo al promotor, así como a los titulares de bienes y derechos afectados por la actuación.

Eta jorrazeko beste gairik egon ez denez gero, alkate and.ak bilkura amaitutzat jo du, arratsaldeko bederatzietan. Hori guztiaren akta hau egin da, nirekin batera alkate and.ak sinatzen duena eta nik, idazkariak, ziurtatzen dut.

ALKATEA/LA ALCALDESA

Y no habiendo más asuntos que tratar, la Sra. Alcaldesa levanta la sesión siendo las veintiuna horas. De todo lo cual se extiende la presente acta que firma conmigo la Sra. Alcaldesa, de lo que, como Secretario, certifico.

IDAZKARIA/EL SECRETARIO